

1.116/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 18koa, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko prozedura ezartzen duena.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

2002ko abuztuaren 26ko 877/02 FORU AGINDUAren bidez ezarri zen gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko 4.000 euroko edo hortik beherako diligentzien kasuan jarraituko den prozedura.

Alor honetan ez da funtsezko aldaketarik izan, 2006ko abuztuaren 2ko 38/06 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendu berria onestearen ondorioz. Hori hala izanik ere, zenbatekoa prozedura hori erabiltzea ahalbideratzen duen kopururaino eguneratzeak eta kreditu entitateak zergabilketako zerbitzurako entitate laguntzaile izateko ezinbesteko baldintza izateak, biek, behartzen dute aipatu prozedura arautzeko xedapen berri bat onartzera.

2006ko abuztuaren 2ko 38/06 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, honako hau ezartzen du 80. artikuluan zergak premiamenduzko bidetik biltzeko prozeduraren barruan: gordailu kontuetan dagoen diruaren bahitura zordunak gordailu entitatearen bulego batean dituen saldo guztiak bahitzeko diligentzia bidez egingo da, Administrazioak kontu bakoitzaren identifikazio datuak ezagutu edo ez, harik eta borondatezko epean ordaindu gabeko zenbatekora eta dagozkion errekaru, interes eta, halakorik bada, sortutako kostuetara iritsi arte.

Artikulu horren 2 apartatuak, bestalde, esaten du bahitura diligentziak zordunak entitate bereko bulego guztietan dituen saldo guztiak hartu ahal izango dituela borondatezko epean ordaindu gabeko zenbatekora gehi dagozkion errekaru, interes eta, halakorik bada, sortutako kostuetara iritsi arte. Kasu horretan, bahitura diligentzia Entitatean edo bere lurraldeko bulegoetan arduradun direnei aurkeztuko zaie, eta gainerako guztian aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

¹ Xedapen honen izenburua maiatzaren 3ko 367/2010 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak 1116/2008 Foru Agindua, abenduaren 18koa, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko 6.000 euroko edo hortik beherako diligentzien kasuan jarraituko den prozedura ezartzen duena, aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2010/06/01ko GAO) eta aldaketan ezarritakoa berau indarrean sartu ondoren Ogasun eta Finantza Departamentuak kontuak bahitzeko egiten dituen diligentzia guztiei aplikatuko zaie.

Bahitura diligentzia entitate gordailuzainari jakinarazteko era, bitartekoa, lekua eta gainerako zirkunstantziak Ogasun eta Finantza Departamentuak eta dagokion entitate gordailuzainak adostu ahal izango dituzte beti, eta fondoak atxikitze gehienezko epea ere haien artean erabakiko da.

Horixe da foru agindu honen asmoa, alegia prozesu bat zehaztea gordailu entitateek bildutako diru kopuruak Foru Ogasunean sartzeko eragiketak zentralizatze aldera eta trabak kudeatu eta horiei jarraipena egiteko behar den informazioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta gordailu entitatea teleprozesu baten bidez komunikatuz bidaltze aldera. Aipatu prozedura, gordailu entitateetan irekitako kontuetan dirua bahitzeko aplikatuko da, 6.000 euroko edo hortik beherako diligenzietan.

Hori dela-eta, 2006ko abuztuaren 2ko 38/06 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, amaierako xedapen bakarrean emandako ahalmenaz baliatuta, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.²

Foru agindu honetan ezartzen den prozedura gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bahitzeko erabiliko da. Bahitura diligenziak bitarteko telematikoen bidez dokumentatuko dira (EDITRAN aplikazioa erabiliz).

Foru agindu honen eranskinean prozeduraren zehaztapen tekniko guztiak eta deskribapen orokorra jasotzen dira.

2. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduketak hastea.

Euren entitateetan irekitako kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko prozedurara atxikitu nahi diren gordailu entitateek, legezko ordezkariak edo berariazko ahalordedunak egindako idatzi baten bidez jakinarazi beharko dute beren atxikimendua. Idatzi hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zergabilketako eta Herriarren Arretako zuzendariorde nagusiari zuzenduko zaio.

Entitate bakoitzak honako datuok adierazi beharko ditu espresuki atxikimendu orrian:

— Entitateak Zerga Administrazioarekin harremanetan jartzeko izendatu duen pertsonaren izena, eta orobat, haren telefonoa, faxa eta, baldin badu, posta elektronikoa.

— Datuak Zerga Administrazioari transmitituko dizkion entitatearen identifikazioa (entitate igorlearena). Prozedurara atxiki den gordailu entitatea ez bada laguntzaile gisa aritzen zergabilketaren kudeaketan, izaera hori duen entitate igorle batekin jardun beharko du nahitaez.

² Artikulu hau ekainaren 6ko 480/2012 FORU AGINDUAren artikulua bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru aginduak gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz bahitzeko prozedura ezartzen duen abenduaren 18ko 1116/2008 Foru Agindua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarri da indarrean (2012/06/14ko GAO) eta aldaketan ezarritakoa berau indarrean sartu ondoren Ogasun eta Finantza Departamentuak kontuak bahitzeko egiten dituen diligenzia guztiei aplikatuko zaie.

— Transmisioak zein herritatik egingo diren.

Entitate bakoitzak Ogasun eta Finantza Departamentuko Zergabilketako eta Herritarren Arretako Zuzendariordetza Nagusian aurkeztu dezake zuzenean bere atxikimendu orria, baina nahi izanez gero, bera ordezkatzeko duen elkartean ere aurkeztu ahal izango du (Espainiako Banka Pribatuaren Elkartean, Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan nahiz Kreditu Kooperatiben Batasun Nazionalean). Azken kasu horretan, dagokion elkarteak Zergabilketako eta Herritarren Arretako Zuzendariordetza Nagusira bidaliko du atxikimendu orria.

Nolanahi dela ere, Zergabilketako eta Herritarren Arretako Zuzendariordetza Nagusiak behar den aurrerapenarekin jakinaraziko dio entitate bakoitzari zein unetan hasiko diren modu efektiboan, eta hari dagokionez, prozedura honetan aurreikusten diren jarduketak.

3. artikulua. Prozedura.

I. Arau orokorrak

Foru agindu honen indarrez Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta gordailu entitateen artean izango diren informazio trukeak bitarteko telematikoez egingo dira (EDITRAN zerbitzua).

Ondorio horietarako, gordailu entitate bakoitzak entitate igorle bat erabili beharko du (gordailu entitate bera edo beste bat izan daitekeena). Entitate igorle batek beti izango du gordailu entitate bati baino gehiagori zerbitzua ematea. Ezartzen den muga bakarra hau da, alegia, hileko ziklo berean gordailu entitate bati buruz igortzen duen informazio guztia entitate igorle berberaren bidez bidaltzea.

Gordailu entitate batek entitate igorlea aldatzea erabakitzen badu, gutxienez bi hilabete lehenago eman beharko dio horren berri Zergabilketako eta Herritarren Arretako Zuzendariordetza Nagusiari.

Foru agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, larunbatak ez dira lanegun izango, ezta Donostian ospatzen diren jai egunak nahiz entitate bakoitzak Zerga Administrazioari datuak igortzeko erabiltzen duen bulegoari dagozkionak ere.

Arrazoi teknikoak direla-eta entitateentzat ezinezkoa denean Zerga Administrazioarekin konexio telematikoa ezartzea, Ogasun eta Finantza Departamentuari hala jakinarazi beharko diote, bidezko izan daitekeen ondorioetarako. Entitateek modu berean jokatu beharko dute Ogasun eta Finantza Departamentuak igortzen dizkien fitxategietan akatsak ageri direnean eta, horien ondorioz, behar den eran tratatu ezin dituztenean.

II. Prozeduraren faseak.³

II.1. Hasiera.

Prozedura Ogasun eta Finantza Departamentuan abiatuko da, non, propio diseinatutako prozesu informatikoak exekutatu, zordunak aukeratu eta haien

³ II. apartatu hau apirilaren 23ko 185/2024 Foru Aginduaren 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru aginduak, abenduaren 18ko 1116/2008 Foru Agindua aldatze du, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematikoz enbargatzeko prozedura ezartzen duena. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2024/04/29ko GAO).

titulartasunpean dauden ageriko kontuak, aurrezki kontuak eta bestelakoak ikertuko baitira, titulartasun portzentajea %100 izan edo txikiagoa izan. Informazio hori lortutakoan, kontuak irekita dauden entitatea aukeratuko da dagozkion enbargo eginbideak eskuratzeko. Entitate berean ezin izango da eginbide bat baino gehiago bideratu aldi berean zordun berberarentzat.

II.2. Enbargo eginbideak entitateei igortzea.

Hil bakoitzaren azken egunean edo, hura baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean, Ogasun eta Finantza Departamentuak fitxategi bat sortuko du entitate igorle bakoitzeko, eta fitxategi horretan jasoko dira entitate igorlearen zerbitzuak jaso dituzten gordailu entitateentzat hileko zikloan sortu diren enbargo eginbideak.

Fitxategi hori zuzenean bidaliko zaio egun berean entitate igorleari.

Enbargo eginbide bakoitzak datu hauek izango ditu:

— Zordunaren IFZa.

— Zordunaren izen-abizenak edo sozietate izena.

— Enbargo eginbidearen zenbakia.

— Enbargatu beharreko zenbateko osoa.

— Enbargo eginbidea sortu den eguna.

— Enbargatu beharreko kontuaren edo kontuen IBAN kodeak: gehienez ere hiru konturen kodeak jasoko dira eginbide bakoitzeko, ageriko kontuenak, aurrezki kontuenak edo bestelakoenak.

Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga-bilketa organoak, entitateek eskatzen badute betiere, fitxategietan jasotako eginbideak arrazoitzen dituzten enbargo aginduen kopiak emango dizkie entitate horiei.

II.3. Traba.

Gordailu entitateak edo, kasua bada, haren igorleak Ogasun eta Finantza Departamentutik eginbideen fitxategia jaso eta hurrengo bigarren egun balioduneko 9:00ak baino lehen, enbargatu beharreko zenbatekoa atxiki beharko da, saldo nahikoa badago; zorra handiagoa izanez gero, dauden saldoak atxikiko dira. Zerga Administrazioako organo eskudunek aurrez eskatuz gero, gordailu entitateak modu frogagarrian justifikatu behar du noiz eta zein ordutan gauzatu den egindako traba.

Ogasun eta Finantza Departamentuak enbargo eginbidean adierazitako kontuei dagokienez egin beharko du traba gordailu entitateak. Kontu horietan ez badago enbargatu beharreko zenbateko osoa ordaintzeko adinako saldorik, edo kontu horiek ez badira ezagunak edo deuseztatuta badaude, entitate bereko bulego guztietan zordunak dituen beste kontuetara zabalduko du enbargoa entitateak. Eginbide bakoitzeko sei kontu enbargatu ahal izango dira gehienez (Ogasun eta Finantza Departamentuak adierazitakoak barne).

Ogasun eta Finantza Departamentuari egin beharko zaion komunikazioaren ondorioetarako, gordailu entitateak kode hauen arabera kontsignatuko du jarduketaren emaitza:

00. Jarduketarik gabe: enbargoaren zenbateko osoa eginbide berean sartutako beste kontuekin ordaindu denean eta, beraz, kontuen gainean inolako jarduketarik egin ez denean bakarrik erabiliko da.

01. Traba egin da: kode hau erabiliko da kontuetan atxikipenen bat egin denean enbargatu beharreko zenbateko osoagatik edo zenbateko horren zati batengatik.

02. Ogasun eta Finantza Departamentuak adierazitako kontuaren titularrari ez dagokion IFZa.

03. Saldorik gabe: kontuak saldo negatiboa edo zero euroko saldoa duenean erabiliko da.

04. Saldoa ez dago erabilgarri: enbargatu beharreko kontuan saldoa egon arren, indarrean dagoen araudiaren arabera saldo hori osorik edo partez erabili ezin denean jarriko da kode hau (entitateak eginbidea jaso aurretik organo administratibo edo judizialek agindutako beste enbargo batzuk egoteagatik...).

05. Kontu ezezaguna edo deuseztatua.

06. Beste arrazoi batzuk: aurreko kodeetan jaso ez diren arrazoiengatik kontuko enbargoa zero denean erabiliko da.

07. Traba baldintzatua: kontabilitate saldoa eta saldo erabilgarria bat ez datozenean eta saldo erabilgarria txikiagoa denean erabiliko da. Entitateak saldo erabilgarria tratatu behar du, eta traba partziala bada 07 kodea adierazi. Horrekin, Ogasun eta Finantza Departamentuak saldoen arteko desadostasunaren berri izango du. Entitateak geroago sartu beharko du tratatutako zenbatekoa.

08. Prozeduratik baztertutako kontua. Kode hau erabiliko da Ogasun eta Finantza Departamentuak enbargatzeko agindu duen kontua prozedura telematikoaz tratatu ezin denean, kontu mota edo titularra aldatzeagatik. Organismo jaulkitzaileak enbargoak gerora ez errepikatzea du helburu.

09. Saldo pignoratua. Enbargatu beharreko kontuaren saldoa behar bezala eratutako pignorazioari osorik edo partez lotuta dagoen kasuetan erabiliko da.

10. Konkurtso egoera. Enbargo eginbidearen xede den zorduna konkurtso prozesu batean sartuta dagoenean erabiliko da.

11. Eperako ezarpena edo gordailu egituratua: eperako kontuak edo epe finkorako ezarpenak zenbateko osoa epemugan itzuliko dela bermatuta ez daukanean erabiliko da.

II.4. Trabei buruzko informazioa entitateek Ogasun eta Finantza Departamentuari igortzea.

Eginbideen fitxategia jaso eta hurrengo lau egun balioduneko epean, entitate igorle bakoitzak Ogasun eta Finantza Departamentuari helarazi behar dio traben emaitza jasotzen duen fitxategia.

Entitate igorle batek gordailu entitate bati baino gehiagori ematen dienean zerbitzua, entitate igorleak banaka bidali ahal izango dio Ogasun eta Finantza Departamentuari gordailu entitate bakoitzak egindako traben emaitza. Eskura duen unean bidali ahal izango dio informazioa, bera igorle duten gordailu entitate guztien emaitzaren zain egon behar izan gabe. Edozein kasutan ere, gordailu entitate guztien traben emaitza lehen adierazi den epean transmititu beharko da.

II.5. Traben informazioaren balioztapenak izandako emaitza Ogasun eta Finantza Departamentuak entitateei igortzea.

Ogasun eta Finantza Departamentuak traben fitxategia jaso eta hurrengo bigarren egun baliodunean, traben balioztapenaren emaitza transmititu behar die entitate igorleei.

Balioztapen horrek trabak onartzea ekar dezake, baina baita haiek errefusatzeko ere igorritako informazioan akatsak daudenean. Azken kasu horretan, entitateak bi egun balioduneko epea izango du, informazioa errefusatu dela jakinarazten zaion egunetik aurrera, aurkitutako akatsak zuzendu eta informazioa berriro bidaltzeko (informazio horretan berriro jaso beharko dira igorpen horretan gordailu entitatearentzat dauden traba guztiak).

Entitate igorle batek gordailu entitate bati baino gehiagori ematen dienean zerbitzua, horietako bakoitzaren igorpena onartzea edo errefusatzeko independentea izango da.

II.6. Enbargoa kentzea.

Hogei egun naturaleko epean, traba egin ondorengo egunetik aurrera, beharrezkoa bada enbargoren bat osorik edo partez kentzea, Ogasun eta Finantza Departamentuak enbargoa kentzeko agindua bidaliko dio bide telematikoz (edo Editran bidez, Zerga Administrazioa eta entitateak hala adosten badute) kasuan kasuko entitateak harremanetarako izendatutako pertsonari, eta azken horrek aginduan adierazitako kopurutik edo kopuruetatik liberatuko du traba.

Nolanahi dela ere, Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga-bilketa organoek hil bakoitzaren 25. egunaren eguerdiko 14:30ak baino lehen bidali behar dizkiete gordailu entitateei enbargoa kentzeko aginduak; egun hori baliogabea bada, hurrengo lehen lanegun baliodunean eta ordu bera jo aurretik bidaliko dituzte aginduak.

II.7. Enbargatutako kopuruak Aldundiaren kontuan sartzea.

Hil bakoitzaren 25ean, edo hura baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliodunean, gordailu entitateak «Gipuzkoako Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Departamentua, Zergak biltzeko kontu murriztua. Enbargoak» izena duen kontu murriztuan sartu behar du enbargatutako saldoen zenbatekoa, betiere Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga-bilketa organoek jasotako aginduen arabera kendu diren enbargoen zenbatekoak gutxitu ondoren, hala badagokio.

Enbargatutako zenbatekoak Foru Diruzaintzan sartzeko eta diru-sarrerara horiei buruzko informazio zehaztua Zerga Administrazioari emateko, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio.

4. artikulua. Prozedura ez betetzea.

Foru agindu honetan arautzen den prozedura berari atxiki diren entitateek behar den eran ez betetzeak esan nahi du Foru Ogasunarekin lankidetzan aritzeko duten obligazio generikoa urratu egiten dela. Horren ondorioz, Ogasun eta Finantza Departamentuak indarrean dagoen araudian jasotako neurriak hartu ahal izango ditu delako gordailu entitatearen aurka.

5. artikulua. Jarraipen batzordea.

Jarraipen batzorde batek zainduko du ondoko hauek behar bezala betetzen direla: foru agindu honetan jasotako prozedura, prozedura aplikatzean ager daitezkeen gorabehera orokorren konponketa eta gaia dela-eta araudian aldatu daitezkeen prozedura horren edukiaren alderdien berrikuspena. Guztira, zazpi kide izango ditu batzordeak: Zergabilketako eta Herritarren Arretako Zuzendariordetza Nagusiko hiru kide, zuzendariordeak izendatuak; entitate finantzarioak ordezkatzeko dituzten elkarteetako hiru kide (AEB, CECA eta UNACC); eta lehendakari bat, Zergabilketako eta Herritarren Arretako zuzendariorde nagusia edo horrek izendatutako pertsona izango dena.

Batzordea urtean behin bilduko da, non eta aztergaien izaera dela-eta batzordekideek maiztasun handiagoz biltzea erabakitzen ez duten.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Egungo osaera gordeko du, foru agindu honek 5. artikuluan xedatutakoa betez, 2002ko abuztuaren 26ko 877/2002 Foru Aginduak, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematiko zahitzeko 4.000 euroko edo hortik beherako diligentzien kasuan jarraituko den prozedura ezartzen duenak, 5. artikuluan jasotakoari jarraituz osatutako batzordeak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Foru agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko dira horren aurka doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak, eta, zehazki, 2002ko abuztuaren 26ko 877/2002 Foru Agindua, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematiko zahitzeko 4.000 euroko edo hortik beherako diligentzien kasuan jarraituko den prozedura ezartzen duena.

AMAIERAKO XEDAPENA.

Bat. Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Bi. Foru agindu honek jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie Ogasun eta Finantza Departamentuak hura indarrean jartzen denetik aurrera kontuak zahitzeko ematen dituen diligentzia guztiei.

Hiru. Hamabost eguneko epea igaro ondoren, foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera, prozedurari zuzenean atxikitzen hartuko dira 2007ko abuztuaren 26ko 877/07 Foru Aginduak araututako prozedurara bilduta zeuden eta prozedura berriari atxiki izana berariaz jakinarazi ez duten gordailu entitateak.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *367/2010 FORU AGINDUA, maiatzaren 3koa, honako hau aldatzekoa: 1116/2008 Foru Agindua, abenduaren 18koa, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematiko zaharretarako 6.000 euroko edo hortik beherako dilijentzien kasuan jarraituko den prozedura ezartzen duena (2010/06/01ko GAO).*
 - Bere artikuluko bakarrik prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - Xedapenaren titulua aldatzen du.
 - 1. artikulua.
 - 3. artikuluko II.2 apartatua.
- *480/2012 FORU AGINDUA, ekainaren 6koa, Gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematiko zaharretarako prozedura ezartzen duen abenduaren 18ko 1116/2008 Foru Agindua aldatzen duena (2010/06/01ko GAO).*
 - Bere artikuluko bakarrik prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - Bat apartatuak 1. artikulua.
 - Bi apartatuak 3.II.2. artikulua.
 - Hiru apartatuak 3.II.3. artikulua.
 - I. eranskineko 5. epigrafean ageri den 214 errorearen edukia.
- *185/2024 Foru Agindua, apirilaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita 1116/2008 Foru Agindua, abenduaren 18koa, gordailu entitateetan irekita dauden kontuetako dirua bide telematiko zaharretarako enbargatzeko prozedura ezartzen duena (2024/04/29ko GAO).*
 - Bere artikuluko bakarrik 3. artikuluko II. apartatua aldatzen du.